

Nafarroa

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1995eko maiatzaren 26a / VI. urtea / 180. zenbakia



Iruñean sinatu zuten errektoreek lankidetzaren hitzarmena eta Leioan berretsi.

Harremanak estutuz

Joan den apirilaren 25ean, Nafarroako Unibertsitate Publikoak eta Euskal Herriko Unibertsitateak lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten Iruñean, eta hil honen 17an Leioan berretsi zuten lortutako akordioa. Aipagarriena, ordea, bi unibertsitateen

tako errektoreek barruti unibertsitario bakarra sortzeko azaldu zuten borondatea izan da. Akordioak barruti bateratua sortzeko aukera jasotzen du baina, errektoreen ustez, zailtasun ugari dago egun asmo hori egia bihurtzeko.

Egun on. Hona dei egin dizuegu atzoko emaitzen balorazioa egitearren.

(KALE BERRIKO EGOITZA)— Lehenbizi eta behin, gure poza adierazi nahi dugu botu espainiarzalearen gorakadari aurre egin dion talde bakarra gurea izan delako. Izan ere, lazo urdineko partiduek eta komunikabide guztiek gure kontra, herri honen kontra, zuzendu duten kanpaina erasokor eta intoxikatzailea super-ikaragarria izan bada ere, esateko moduan gaude, harro gainera, sendo eta zintzo erantzun diegula, haien helburu suntsitzaileak berriro porrot egin dutelarik. Botu eta eskuinaren galerarik izan dugu bai, baina galdutako botunhoriek abstentzioan daude, lozorroan, sasi-demokrazia honetan federik ez dutelako. Zin dago iratzarri egingo ditugula milenio hau amaitu baino lehen! Galerak galera, hurbilago dakusagu garaipen eguna. Gora gu eta gutarrak.

(GAZTELUKO PLAZAKO

EGOITZA)— Beno, gurea oso balorazio positiboa ez bada ere, pozkarioz jaso ditugu emaitzak, oraindik askoz ere okerragoak izan zitezkeelako. Erantzunkizun politikoak badu bere prezioa nonbait, eta guri egokitu zaigu garestixe oradaindu beharra. Bestetik, botu emotera joan ez direnak askotxo izan dira honakoan ere, eta horrek kalte egin digu, hein handi batean, botu horiek gureak direlako. Aldi berean, jeltzaleen jokabide zitala gureganako salatu nahi dugu, berek bultzaturiko sasi-koalizio ziztrin hori gabe, oso bestelako emaitzak eskuratuko baigenituzkeen. Nahiz eta pitin bat saminduta izan, beterik gaude egindako lanagatik. Gora

Bi hormetara

JOSETXO AZKONA



gure Carlos Erantzulea!

(ESTAFETA KALEKO EGOITZA)— Nafarroako milaka eta milaka behartsuk beren konfidantza gudan jarri arren, ez dugu gure zerrandaburu ponpoxa Parlamentura eramaterik izan. Hala ere, gu kontent, hura ez baitzen gure xede nagusia. Kale, plaza eta auzoetako jendearen kontzientziari astindu bat eman nahi genion, eta zinez lortu dugula gure militantziari esker. Litekeena da agian, zenbait behartsu, gazte, emakume, langile eta bestek ongi ulertu ez izana gure afitxeetako aberats-itxura eta kontserbadoreak gareneko hori. Horrexegatik, seguru, haietarik milaka abstenituko ziren edo haietarik zientoka IUri

emango zioten botua. Baina guri bost axola, kolokan ez baitago gure borroka!

(ZAPATERIA KALEKO EGOITZA)— Pozaren pozez, ia kabituz ezinik, adierazi nahi dizuegu gorakada handia izan dugula hautan, deus gutxi izatetik hirugarren milenioaren benetako nafar aberztaleen alternatiba izatera pasako garelako. Etorkizuna gurea da, eta gu, jeltzaleok, izango gara haren gidari nagusia. Gora JEL eta JEL!

(IRUÑEKO ZUMALAKARREGI ATARIAREN ONDOAN, ADIBIDEZ)— Hemen gaituzue Herri Karlistaren ordezkaritza hau, Nafarroa, Ama Euskalerraren alaba kuttuna dela berriz aldarrikatzeko. Jurramendin ozen esan dugun arren, eta horrela ere ulertu dute gure botuemaileek: egoera negargarri honi akabera eman behar zaiola, alegia. Nahikoa da, nahikoa da!...

Galderarik balitz, mesedez, banan banan.

Ustegaberik ezean, emaitzen araberako adirazpen imaginarioak

GURE AUKERAK

ANTZERKIA



'Behi memoriak' izeneko antzezlan taularatuko du gaur ostirala, maiatzak 26, Irubide Antzerki Tailerrak. Atxagaren liburaren bertsio libre hau arratsaldeko 20.00etan hasiko da, Nafarroako Antzerki Eskolan. Sarrera dohainik.

Los Galindos antzerki taldeak 'Tuterako zirkoaren istorioak' izeneko antzezlan taularatuko du asteburu honetan Urrotz eta Zizur Txikian. Udaberriko Bira zikloaren barruan, bihar Urrotzen izanen dira, arratsaldeko 6.30etan, Ferialeko plazan. Igandean, berri, Zizur Txikian ariko dira, eguerdiko 12.00etan, Zelaian.

MUSIKA



Ruper Ordorika, Bixente Martinez eta Joseba Tapia abeslarien emanaldia izanen da heldu den ostegunean, ekainak 1, Iruñeko Gaiarre Antzokian. Bedatseko Giroa Udalak antolatutako zikloaren barruan, arratsaldeko 8.00etan hasiko da eta sarrerak 600 pezetan salduko dituzte.

'Baron Rojo' eta 'Gamdalf' musika taldeen kontzertua izanen da bihar larunbata, maiatzak 27, Garesko dantzalekuan. Gaueko 11.00etan hasita, sarrerak 1.500 pezetan salduko dituzte.

Antonio Flores abeslariak kontzertua eskainiko du gaur gauean Iruñean, Anaitasuna polikiroldegian. Hiriko udalak antolaturik, sarrerak 600 pezetan salduko dira. Musika emanaldia gaueko 10.00etan hasiko da.

BESTELAKOAK



Victor Ullateren Balletak emanaldi bat eskainiko du gaur ostirala, hilak 26, Iruñeko Gaiarre Antzokian, arratsaldeko 8.00etatik aurrera. Sarrerak bertan izanen dira salgai, prezio ezberdinetan: salan 1.500, palkoan 1.000 eta anfiteatroan 500 pezetan.

Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña bertsolarien saioa izanen da bihar larunbata, hilak 27, Goizuetako Elkartean. Bertso afari moduan antolatua, gaueko 9.00etan hasiko da.

Zinema Mexikarrari buruzko zikloaren barruan 'Campanas rojas' izeneko pelikula botako dute heldu den asteartean, maiatzak 30. Nafar Ateneoak antolatuta, Iruñeko Olite zineman izanen da, arratsaldeko 8.00etan. Sarrerak 350 pezetan salduko dituzte.

NAFAR KRONIKA

PATXI LARRION

Fontellasen ari dira

Euskal Herria anitza omen da. Mendeetan zehar urratzen eta josten joan den herria mila koloretako atorraz jantzi zaigu. Jatorri desberdineko oihalek doterezia berezia eman ohi diote herri txiki honi. Beti ere, gisa horretako apaingarriekin zatar xamarra azaltzen dela uste dutenak ez dira gutxi. Tuterako

zehatz bati erantzuten zion ideologia zabalduz joan zen heinean, beste errealitate batzuk alboratu egin ziren.

Alta, aniztasunaren leloa zaharra da gurean, zenbaitzuen ustez, aipatutako ideologia baino lehenago. Egun du arrakasta gehien, zenbait diskurtsotan, lelo hori ezinbestekoa bada ere, praktika eta teoria ez

egoera batera iristeko alimalezko lanak egin behar diren gaude.

Desberdintasuna baino, aberastasuna nahiago. Xabier Urzanteren liburua lagun aniztasunaren zenbait printza, garai aberats-mitikoaren zertzeladak, euskara tokian tokiko sustraiekin bategiteko saioa.

Aurten, urri partean,



historialari batek «forua» maitatua bezain ezezaguna dela esan zuen. Bezgauza esan daiteke gure ondarea, gure sustraiak aipatzen direlarik. Herri honen irudi

dira maiz uztartzen. Aintzinako irudiek duten pisua ez da nolana hiko. Oraindik hizkuntzak ez du folklokeria baztertu. Kultura mailan ere neutraltasun

guzti honetaz gogoeta egiteko parada izanen dugu. Jakin badakit, gogoeta bainoago festa egiten dela usu. Fontellas herrian ari dira lanean. Gogoan izan.

ASTEKO PERTSONAIK



Ruben Beloki
Pilotaria

Eskez Banakako Txapelketa 20 urtekin irabazi du Ruben Beloki pilotari burlatarrak, gehienek uste zuten moduan, baina kostata irabazi zuela esan behar da. Inaxio Errandonea beratarak ez baitzion bide erraza utzi nahi izan. Eta horrela behar zuen, bi pilotari onenen arteko lehia ikusgarria ikusteko parada izan genuelako telebista aurrean geunden gehienok. Adu askoren esanetan urtetarako dugu txapelketako irabazlea, Ruben Beloki pilotari bikaina baita, baina gauzak asko alda daitezke urtetik urtera, eta aurten eskas ibili direnak beste urte batean ongi jokatzen badute emaitza bestelakoa izan ahal da. Hori bai, eskuz banakako txapelketa honetan hoberenak irabazi duela ezin uka.



Julio Caro Baroja
Antropologoa

Principe de Viana Kultur Saria irabazi du aurtengo edizioan Julio Caro Baroja historiagilea, etnologoa eta ikertzaileak. Nafarroako Kultur Kontseiluak horrela erabaki zuen joan den asteburuan, bere bizi osoan ikerkuntza arloan egin duen lanagatik. Madrilen 1914ean jaioa, Beran eman ditu bere biziko urte asko, Itzea baserrian. Honetaz gain, Nafarroarekin harreman estua izan du beti Caro Barojak, historiagile eta etnologo moduan lan ugari egin baitu herrialdeari buruz. Honetaz gain, eta Nafarroako Gobernuak erabaki duenez, Museo Etnologikoak bere izena emanen du, agintariek bere lana nolabait ordaindu nahi dutelako. Principe de Viana saria ekainan edo uztailan Leiren eginen den ekitaldian emango diote Caro Barojari.

AHAZTU GABE!

JARDUNALDIK



'XI. Folklore eta Kultura Tradizionalari buruzko Jardunaldiak' antolatu ditu Ortzadar Iruñeko Euskal Folklore Taldeak urriaren 18an eta 21a bitartean iraunen du. Herri kulturaren adituak eta gai horren inguruko ikertzaileak eta orohar jakinmina dutenei zuzendua dago, aurtengo edizioaren gaia 'Herri sendagintza' izango baita. Helburua, herri kulturaren gaixotasunak pertsonengan edota gizartearen sortutako jarrera eta erantzuna ikastea da. Honela, ikuspegi ezberdinetatik abiatuz aipaturiko gaia lantzea proposatzen dute: gaitzei buruzko ideiak, sendatzeko prozesuak (kutsu majikoa dutenak edo sinismen mailakoak, jakintza empirikoen aplikazioa, aintzinako medikuntza eskolen biziraupena...), baita egungo gizarteko pentsamoldean 'folkmedicine' delakoak duen eragina. Jardunaldiak Iruñean ospatuko dira. Sarrera gisako hitzaldi batzuk emango diete hasiera lan mintegiei, hauetan izen ematea dohainik izango da eta Jardunaldietako Idazkaritzara zuzenduz egin ahal izango da. Lan mintegian autore moduan parte hartu nahi duenak ekainaren 30 baino lehen lanaren edukaren laburpen motza eta izenburua igorri beharko du.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, asteleheneetik ostiralera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etati 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Asteazken zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...



Barañain

Gaztetxearen urteurrena

Kartzelako gaia

Juan Kruz Lakasta

Zerua eta infernua

Ez dut uste Jaungoikoa existitzen denik, ezta zerua eta infernua ere. Dena dela, horiek existituko balira nahiago nuke infernura joan, bertan zeruan baino jende interesgarriagoa izanen litzatekeela uste dut-eta. Esate baterako, zalantzarik gabe infernua ez litzateke Paz Fernandez Espetxe Erakundeko burua bezalako pertsona gogaikarria izanen.

Beatoak zerura joaten ei dira, eta Fernandez andrea hil bezain pronto beatifikatu egingo dute; izan ere, Monseñor Escriva de Balaguerrek baino mirari handiagoak egiten ditu. Tumatxa da. Fernandezek emakumerik zaharrena erakargarri bihurtzen du. Presoai, bederen, astea kartzelan emakume bakar bat ere ikusi gabe eman eta gero, asteburuan bisitan etortzen zaizkigun emakume guztiak, zatarrenak ere, ederrak iruditzen zaizkigu. Zalantzarik gabe, beatifikazioa merezi du.

Nire neska-laguna, berez, eder, lirain eta kilikagarria da —rediox, ze guapa den!—, eta,



Fernandezen mirariaren laguntzaz, munduko neskarik ederrena baino ederragoa iruditu zitzaidan joan den egunean Entzutegi berriko obrara ni agutzera igo zelarrik. Bera obran eta ni patioan, elkarri oihuka hasi ginen. Hasi bezain pronto, Karakortada goitizena duen eta Clint Eastwooden jarraitzaile sutsua den funtzionaria hurbildu zen nigan. Bera: «Debekaturik dago kanpokoekin komunikatzea». Ni: «Eta hitz egiten segitzen badut, zer?». Bera: «Bada, segitu edo ez segitu parte bat irabazi duzu, galde-tzeagatik. Emaizkidazu zure abizenak». Nik, intsumituok dozenaka parte dauzkagunez, gehiegi larritu gabe «ados» erantzun nion. Bera: «Zu eta biok ez gara inoiz ados izanen». Ni: «Juan Kruz Lakasta Zubero». Bera: «Bi abizen besterik ez ditut behar». Ni: «Bi eman dizkizut. Kruz izena da. Juan Kruz izena eta Lakasta Zubero abizenak, ados?». Bera: «Bai». Ni: «Ezinezkoa zela uste bazenuen ere ados jarri gara». Bera: «Bigarren parte bat jarriko dizut, bazilatzeagatik». Karakortada zerura joatea espero dut.

EDURNE ELIZONDO / IRUNEA

Barañaingo gaztetxeak, orain dela gutxi Iruñekoak egin zuen moduan, bere urteurrena ospatuko du bihar. Horretarako, Barañaingo Gazte Asanbladak hainbat ekitaldi prestatu ditu. Txistulariak, haurrentzako joakoak, Eguzki Banaketaren merkatu txikia, dantzariak eta beste hainbat ikuskizun egongo da ikusgai Udaletxeko plazan goiz osoan zehar, eta Gazte Asanbladako kideek herritar guztiei egin die bertan egoteko gonbita. Eguerdik partean, berriz, herri bazkaria egingo da Udaletxeko plazan bertan eta trikitalari eta txalapartariak alaituko dute giroa. Arratsaldean mus jokariak izango dira protagonista Udaletxeko plazan egingo den txapelketan eta musean aritu nahi ez duenak, berriz, arratsaldeko zortziak aldera gaztetxean bertan ezusteko kontzertuaz gozatzeko aukera izango du.

Barañaingo Gazte Asanblada gazteriaren inguruan zegoen hutsunea betetzeko asmoz sortu zen. Asanbladako kideen ustez, Barañainen ez zegoen gazteen artean halako egitura edo mugimendurik eta horren beharra ikusita, Gazte Asanblada sortu zuten. Hasieran, bertako ikastetxe publikoan elkartzan ziren



Herri bazkaria egingo dute urteurrena ospatzeko.

gazteak, baina bertako Udalak eraikin bat utzi eta bertan dira gaur egun.

Gaztetxeak, lehen urteurrena ospatuko du bihar aipatu ekitaldien bidez. Hilabete hauetan egindako lanarekin oso kontent agertu dira Gazte Asanbladako kideak eta euren zereginarekin aurrera jarraitzeko prest agertu dira, «urte osoan egin ditugun ekitaldi guztiekin jarraituz».

Egin dituzten ekitaldi guztien

artean, Gazteriaren Asteak eta jaialdiak nabarmendu dituzte asanbladako kideek. Behar-suentzat jostailuak eta bestelakoak ere bildu dituzte. Guzti honetaz gain, urte osoan zehar, hainbat ikastaro eta tailer ere antolatu dituzte Barañaingo gazteek eta herriaren erantzuna oso ona izan da, antolatzaileek nabarmendu dutenez. Izan ere, «guztien partehartzea bultzatzea» da Gazte Asanbladak duen

helburu nagusia. Ikastaroak ere ugari eta mota ezberdinetakoak izan dira, zura lantzekoak, malabare ikastaroak, dantza eta gitarra ikastaroak. Antzerkia ikasteko aukera ere izan dute Barañaingo gazteek gaztetxean, besteak beste.

Bihar, Barañaingo gaztetxeak lehen urteurrena ospatuko du eta Gazte Asanbladako kideek azaldu dutenez, herri guztiak parte hartzea da euren helburua.

Iruñea

Euskalerrria Irratiak saio berezia eskainiko du hauteskunde gauean

K. DIEZ DE ULTZURRUN / IRUNEA

Hauteskundeak direla eta, Iruñeko Euskalerrria Irratiak saio berezia egingen du igande honetan, arratsaldeko zortzietatik aurrera. Helburua da ahalik eta informazio zuzenena eta zehatzena ematea, eta horretarako 25 bat lagun ariko dira lanean. Azpimarratu beharra dago horietatik hogeita inguru Kazetaritza Fakultateko ikasleak direla, Euskalerrria Irratian praktikak egiten dabilanak.

Arreta berezia egingen zaio Nafarroako Parlamentuari. Datuak Diputazioan bilduko dira eta hantxe bi kazetari ibiliko dira. Halaber, Iruñea, Burlata, Barañain, Atarrabia, Berriozar, Antsoain, Zizur eta gure herrialdeko herri handienetako datuak emanen dira (Lizarra, Tafalla, Tuter, Zangoza, Baztan eta abar), irratiko berriemaileen bitartez



Saio berezia egingo du Euskalerrria Irratiak igandean. JOXE LACALLE

edo Xorroxin, Aralar eta Irati Irratiekin elkarlanean.

Era berean, konexioak egingo dira alderdi politikoen egoitzekin eta irratian bertan bi komentariari ariko dira: Carlos Vilches soziologoa alde batetik eta Iñigo

Rikarte nafar politikagintza hurbiletik jarraitzen duena bestetik.

Nabarmentzekoa da Iruñeko Udalaririk buruzko datuak aurreratu dituela Euskalerrria Irratiak, Udalak berak zortzi t'erdietarako izanen duen ikerketaren bitartez.

Lizarra

Tangoaren lehen astea

IRUNEA

Tangoaren lehen astea ospatuko dute Lizarran, datorren asteartea, maiatzak 30, eta ekainaren 2a bitartean. Datorren asteartean, 'La nostalgia del tango' izeneko erakusketaren inaugurazioak emango die hasiera ekitaldiei, arratsaldeko zazpitan, eta ondoren, Rafael Floresek gidatutako zine foruma egongo da. 'Encuadre de canciones' filmea izango da ikusgai. Lehen eguneko ekitaldi horiek Fray Diego kultur etxean izango dira.

Maiatzaren 31n, berriz, Kultur Etxean bertan ere, arratsaldeko zortzi t'erdietan, 'El día que me quieras' filmea jarriko dute eta Javier Barreireoren eskutik, pelikula amaituta, eztabaida izango da. Biharamunean, Los Morochos taldeak 'Recuerdo malevo' ikuskizuna aurkeztuko du Julian Romano Kontserbatorioan, arratsaldeko zortzi t'erdietan.

Ekitaldi horietaz gain, tango ikastaroa izango da ekainaren 3a eta 7a bitartean Kultur Etxean.



Euskal Herriko Unibertsitateak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak sinatu duten lankidetzak akordioak barruti unibertsitario bateratua sortzeko bi zentroetako errektoreek duten borondatea jasotzen du. Bi

unibertsitateetako errektoreek azaldu dutenez, hala ere, oraindik ez da posible barruti bateratua sortzea, zailtasun ugari dela medio. Izan ere, autonomi elkarteetako gobernuek ere badute zer erranik auzi honetan.

Barruti bakarrerako bidean

EDURNE ELIZONDO / IRUÑEA

Juan Garcia Blasco Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) errektoreak eta Juan Jose Goiriena Euskal Herriko Unibertsitatekoak (EHU) bi zentroen arteko lankidetzak hitzarmena sinatu zuten joan den apirilaren 25ean Iruñean, eta, maiatzaren 17an, berretsi egin zuten Leioan. Are gehiago, NUP eta EHUn artean barruti bateratua sortzeko borondatea erakutsi zuten errektoreek ekitaldi bi hauetan. Hala ere, asmo hori egia bihurtzeko oraindik ere zailtasun ugari dagoela aitortu zuten unibertsitateetako ardura-dunek.

Euskal Herriko eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren arteko lankidetzak hitzarmena lau puntutan zehazten da: irakas-kuntza eta atal akademikoan, arlo zientifikoan eta ikerkuntzan, hizkuntz normalizazioan eta elkarren artean zerikusi nabaririk ez duten gaiak biltzen dituen laugarren atalean. Nafarroako Unibertsitate Publikoak, halaber, antzeko akordioa sinatu zuen orain hilabete batzuk Errioxako eta Zaragozako unibertsitateekin.

NUP eta EHUn arteko lankidetzak hitzarmenari dagokionez, atal akademikoan irakasleen eta langileen mugikortasuna errazteaz gain, ikasleen mugikortasuna bultzatuko dela aipatzen da. Maila berean, hitzarmena sinatu zuten une berean, bi zentroen arteko barruti bateratua sortzeko aukera aztertuko dela azpimarratu zuten unibertsitateetako errektoreek. Hala ere, gaur egun dauden oztupo legal eta teknikoak ezin daitezkeela ahaztu nabarmendu zuten biek. Asmoa eta bidea barruti bakarra lortzeko izan behar duela azpimarratu zuten, hala ere, errektoreek.

Hitzarmena Nafarroako Unibertsitate Publikoak beste unibertsitateekin sinatutakoa bezalakoa da, baina hizkuntz normalizazioaren atala salbuespena da. Juan Garcia Blasco NUPeko errektoreak erran duenez, «guk

aterako dugu puntu honetan probetxu gehiago, ikasteko asko baitauekagu beraiengandik». Hizkuntzaren atalean, hain zuzen ere, bost puntuko lankidetzak bultzatuko dute akordioa sinatu zuten unibertsitateek: irakasleen trukea euskarazko irakaskuntza garatzeko, gaiari buruzko ekimen bateratuak, euskarazko publikazioen koordinazioa, ikastaroen programetan elkarlana eta irakasle elebidunen azterketen koordinazioa.

Hitzartutako guztiaren jarraipena egin ahal izateko, Errektoreen Batzorde Iraunkorra osatuko dute NUP eta EHUK. Aldi be-



Juan Garcia Blascoren ustez barruti bakarraren bidez hobeto aprobetxatu daitezke baliabideak JOXE LACALLE.



rean, lan taldeak ere martxan jarriko dituzte akordioak jasotakoa betetzeko.

TITULU ESKAINTZA ZABALAGOA

Juan Garcia Blasco Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektoreak azaldu duenez, Espainian unibertsitateak ugaltzeko joera da nagusi baina bere ustez, joera hau baino hobeto litzateke «unibertsitate barruti bakarra eratzea, izan ere, unibertsitate hauek irakasle trebatu eta titulu eskaintza txikia baitute». EHUREkin sinatutako akordioa lehen urratsa izan daiteke, baina Blascok argi utzi du, Euskal Herriko Uniber-

tsitatearekin lankidetzak hitzarmena sinatu den bezala, Errioxa eta Zaragozakoarekin ere sinatu dela. Hala ere, bere hitzetan barruti bakarra sortuz gero, «era egokiagoan aprobetxatuko litzateke dauzkagun bitarteko material eta pertsonalak».

NUPen barruan, asko dira barruti bakarraren aldeko jarrera dutenak eta EHUREkin sinatutako hitzarmena horra heltzeko pauso garrantzitsua da hauen ustez. Hala ere, NUPeko irakaslea den Orreaga Ibarrek azpimarratu duenez, «badira ere horren beldur direnak». Bere ustez, ordea, guztiz beharrezkoa zen sinatu berri den lankidetzak hitzarmena.

■ Nafarroako Unibertsitate Publikoak eta Euskal Herriko Unibertsitateak apirilean Iruñean sinatutako lankidetzarako hitzarmena hil honen 17an berretsi zuten bi zentroetako errektoreek Leioan. Aipatu hitzarmenean jasotzen denez, «unibertsitate bakarra sortzea pentsatuko da, bere garaian erabakiko diren ondorioekin».

Juan Jose Goiriena Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreak orduan eta bestetan ere erran duenez EHUn eta NUPen arteko unibertsitate barruti bakarra «ezin da egun batetik bestera egin». Juan Jose Goiriena errektoreak

arrazoi legalak aipatu zituen, bi autonomi elkarteetako gobernuek hartzen baitute parte. EHUKo errektorearen ustez, halaber, «barruti bakarra berehala egingo balitz desorekak sortuko litzateke eta arazoak agertuko lirateke. Hala ere, barruti bakarra sortzea bi autonomi elkarteentzako «ona» izango litzatekeela gaineratu zuen Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreak. Besteak beste, bi autonomietako ikasleentzat titulazio eskaintzaren areagotzea aipatu zuen abantailen artean. Epe erdian ere, errektorearen ustez, unibertsitateen kalitatearen hobekuntza ekarriko luke barruti bakarra sortzea.

«Berehala egitea ez da egokia»

E. E. / IRUÑEA

Bertakoen iritzia




Alejandro Arizkun

NUPeko Hizkuntz Normalizazioako arduraduna

1. Akordioa, lehenik eta behin, oso positiboa iruditzen zait, hainbat arrazoiengatik. Alde batetik, unibertsitateen arteko elkarlana beti da onuragarria. Gaur egun, neurri ertaineko unibertsitate asko sortzen ari da eta badira unibertsitate horiek, bakarrik, konpondu ezin dituzten arazoak. Unibertsitateen lankidetzaren bidez, posible da proiektu zabalagoi aurre egitea. Bestalde, Euskal Herriko Unibertsitatearekin sinatutakoa akordioari dagokionez, ahaztu ezin daitezkeen harreman historiko, geografiko eta kulturalak ere badaude eta hori dela eta, akordioak dagoen errealitate sozialari erantzuna ematen dio.
2. Akordioa, nire ustez, barruti unibertsitario bakarra lortzeko bidean dagoen hitzarmena da, baina barruti bateratua sortzeko erantzukizuna ez da unibertsitateena bakarrik. Bi unibertsitateek, euren autonomiaren eremuan, akordioa sinatu dute baina barruti bakarra sortzea ez da hain erraza, unibertsitateen eskuduntzatik kanpo dauden zenbait atal zehaztu behar dira, badira arazo legalak, autonomi elkarte bakoitzeko gobernuak ere hartu behar du parte eta, beraz, ez da unibertsitateek erabaki dezaten gaia. Sinatutako lankidetzaren hitzarmenak jasotzen duenaren arabera, barruti bakarra sortzeko bidean pausoak eman behar direla aipatzen da, hau da, unibertsitateen eskuduntzen barruan, eman daitezkeen pausoak emateko borondatea jasotzen du akordioak.
3. NUPentzat oso positiboa izango da akordioa. Euskal Herriko Unibertsitatearekin, hala ere, badira lehenik eta beste akordioak, hirugarren zikloari dagokiona, adibidez. Hizkuntz normalizazioari dagokionez, Pello Salabarurekin jada bildu naiz eta hasi gara elkarlana zein ataletan zehaz dezakegun aztertzen.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen artean sinatutako akordioak mahai gainean jarri du barruti unibertsitario bakarra. Batzuentzat, Errioxa edo Zaragozako unibertsitateekin sinatutako akordioa bezalakoa da; beste batzuentzat, ordea, kutsu berezia du. Akordioari buruzko iritzia eman eta NUPen izango duen eraginaz mintzatu dira bertako hainbat kide.


1. Zer deritzozu Nafarroako Unibertsitate Publikoak Euskal Herrikoarekin sinatutako akordioari?
2. Barruti unibertsitario bateratua lortzeko lehen urratsa izan daitekeela uste duzu?
3. Positiboa izango al da Nafarroako Unibertsitate Publikoarentzat sinatutako hitzarmena?



Javier Etxeberria

NUPeko idazkari nagusia

1. Akordio honek arlo askotan ateak zabaltzen ditu bi unibertsitateetan elkarrekin lan egiteko. Nire ustez Nafarroako Unibertsitate Publikoa eta Euskal Herriko osagarriak dira eta bata bestetik lor dezakeena aprobetxatu egin behar du. Esperientzia gehiago du EHUK eta hori bion onerako izango da.
2. Gutxienez, akordio honek barruti bakarra sortzeko borondatea jasotzen du. Pentsatu behar da ez dela bi unibertsitate hauen kasua bakarrik, hala ere, Madrilgo Unibertsitateen Kontseiluak, hain zuzen ere, unibertsitatei honelako pausoak emateko gomendatzen die. Izan ere, unibertsitate asko dago eta elkarrekin lan egin beharra dago, taldeak sortu behar dira, bestela unibertsitate txikiak ez dute aurrera ateratzeko aukerarik izango. Akordio honek, bestalde, kutsu berezia izan dezake, izan ere, euskaraz irakasten duten unibertsitate bakarrak gara eta nahitanahiez elkarrekin lan egin behar dugu. Bestalde, halako akordioek ateak zabaltzen dituzte baina gero bidea egin behar da, eta horretarako kontuan hartu behar da gure unibertsitateko irakasleak badatozela, gehienez, bai Euskal Herriko Unibertsitateetik bai Zaragozakoetik. Bertako irakasleekin, beraz, harremana dute eta beraien eginbehar dituzte lan taldeak.
3. Bai, oso positiboa, eta ez bakarrik lehen eta bigarren zikloan, baita ere eta bereziki hirugarren zikloan, doktoretzan. Eremitan, sinatutako lankidetzaren bidez aukerak asko zabaltzen dira, zeren eta, agian, unibertsitate bakar batek ezin du doktoretza programa polit bat osatu eta bien artean asko hobe daitezke hirugarren zikloko programa hori. Bide horretan ere lan egiten ari da. Titulazioak ere, noski, zabaldu egingo dira. Nire ustez, gainera, guzti honen emaitzak laster ikusi ahal izango dira.



Jesus Angel Izquierdo

Grupo Universitarioko kidea

1. Lankidetzaren guztia guretzat positiboa da, ez bakarrik EHUREkin sinatutako hitzarmena, baita unibertsitate honek Errioxako edo Zaragozakoarekin sinatutakoak ere. Ikasleen onerako diren eta beste unibertsitateekin sinatzen diren akordio guztiekin bat gatoz.
2. Euskal Herriko Unibertsitatearekin eta Errioxa edo Zaragozakoarekin sinatutako akordioak ia berdinak dira. Hala ere, auzi honek etorkizunean izango duen jarrera hurrengo errektorea nor den izanen da. Nafarroako Unibertsitate Publikoak Euskal Herriko Unibertsitatearekin sinatu duen akordioa hori besterik ez da, akordio bat. Datorren ikasturtearen hasieran dira errektorea hautatzeko hauteskundeak eta orduan irabaziko duenak, agian, orain arte egindakoa bertan behera utziko du. Egia erran, barruti unibertsitario bakoitzaren auzia gure artean eztabaiatu ez dugun gaia da.
3. Bai, zalantzarik gabe. Ikerkuntzaren alorrean, adibidez, EHUK urte batzuk darama lanean eta esperientzia horrek on handia egin diezaioke Nafarroako Unibertsitate Publikoari. Ikasleei dagokionez ere, eskaintza zabaldu egingo da eta hiri guztiontzat da onuragarria.



Mikel Lasarte

Ikasle Abertzaleetako kidea

1. Hitzarmena oso positiboa iruditzen zaigu. Hala ere, ez du gauza gehiegi esaten, hau da, barruti bateratua sortzeko aukera baino ez du jasotzen. Guk horren alde lan egin dugu eta gure helburu nagusietako bat da, benetako euskal unibertsitatea lortzeko. Alde batetik, ikasleek aukera gehiago izango dituzte, hangoak hona etorri ahal izango dira eta hemengoak hara joan. Aukerak zabaldu egiten dira, beraz, baldintza beretan eta baliabideak hobeto erabiltzen dira.
2. Historikoki egin dugun aldarrikapena da barruti bateratua lortzea eta akordioak barruti bateratu hori ateak zabaldu egiten dizkio, lehen urratsa da. Hala ere, zailtasun handiak daude hori lortzeko, batez ere gobernuak sortuko dituztenak, baina aurrerapausoa da eta tinko jarraitu behar dugu barruti unibertsitario bakarra aldarrikatzen.
3. Nafarroako Unibertsitate Publikoak Euskal Herrikoarekin sinatu duen hitzarmena oso positiboa izango da guretzat, titulazioen eskaintza, adibidez, areagotu egingo da eta unibertsitate berean karrera gehiago ikasteko aukera egongo da. Halaber, euskararen plangintza bateratua egin ahal izango da, baita doktoretza programak hobetu ere.

Herensugea maite zuen printzesa

Galdera: Ipuinetako printzesa naiz. Nire aita erregek, Herensugeak egiten zituen kalteekin erresuma arriskuan ikusiaz, amu gisa, nire eskua eskaini zuen, Herensugea akabatzen zuen ausartarentzat. Eta Zapatari Harroa gertatu zen garaile. Herensugeak akabatzen dituen pertsonaren irudia gaur egungo sexu eredurekin bat dator. Bulartsuak bezain azkarrak, basatiak bezain ur goxozaleak, itsasotik horma balak ateratzen dituenetakoak.

Hala ere, herensugeak akabatzeak, gotorlekuak oinperatzeak, asto-lasterketan irabazteak, edota Kanboian aritu izanak heroiaren tamaina neurtu ahal izateko balioko du, baina ez, inolaz ere, Errege baten alabaren bihotza bereganatzeko. Ez dut maite Zapatari Harroa, Ezta Rambo ere. Nik Herensugea maite dut, badaki bibolina soinatze, eta



«Emakume bat
naiz, eta berriro
jaiotzekoa baldin
banintz, nik gizon
izan nahi nuke, ez
baitute deus
egiten, alfer huts
horiek».

prestau / zapatuan bere apaindu / eta domekan bere apaindu eta / hamarretako mezara. /

Beste adibide bat, beste kanta bat, erdaraz. 'Madre, que es el casar? / Coser, parir y llorar.'

Ziur aski mundua aldatu da kanta horiek sortu zirenetik honata, eta ziur aski emakumeen egoera ez da hori, baina hori da nire egoera, eta ni berriro jaiotzekoa baldin banintz, nik gizon izan nahi nuke.

Erantzuna: Badago Tiresias izeneko pertsonaia mitiko bat, boladaka gizon eta boladaka emakume zena. Bi muturren eskarmentua izanik, bakarrik galdetu zitzaion ea nork hartzen zuen plazer gehiago larrutan ibiltzean, emakumezkoak edo gizonezkoak.

Nik uste dut Tiresias horri gauza aunitz galde ahal zaizkiola. Dagoeneko hila da.



'Caines navarros' liburuko ilustrazioa.

pensta dezakezunez ez du printzesarik jaten.

Nahiago dut mila aldiz gehiago Herensugearekin bizi, maite ez dudan heroi harropuzarekin baino.

Erantzuna: Ez da oso profesionala izango gaixo baten aurrean sendagilea malkoak isurtzen dituela agertzea, baina zure aferak barrenak txikitu dizkit. Kasu tristea, oso tristea zurea. Heroi bulartsua baino Herensugea maiteago duen printzesarena.

Galdera: Emakume bat

naiz, eta berriro jaiotzekoa baldin banintz, nik gizon izan nahi nuke, ez baitute deus egiten, alfer huts horiek. Bi adibide.

Haurrentzako diska batek ateratako kanta bat da. Honela dio: 'Josepa Antoni Koloregorri / Kapitan baten alaba / aitak doterik emon ez arren / bilatuko dau senarra. / Astelehenean ezkondu eta, / martitzenean basora / eguaztenean orbela batu, / eguenean etxera, / Bariekuan bendeja

Esate baterako nik galde-tuko niokeen: zerk sortzen duen stres bortitzagorik, ejetutiboan lanak ala etxeko andreenak? Burtsan bost milioi galtzeak bost minututan 500 izanik, edota sukalde erretzeak bost minututan, sukalde hori sukalde bakarra izanik? Etxeko lana, infernuko lana.

Adiskide batek galdetu zidanez, nola nahi duzu ni mundua iraultzea, ez banaiz gauza nire gela hilean behin eskobatzeko?

Klasiko bitxi arront klasiko

Joxemiel Bidador

Txori, arrain eta beste



Behiala landareei buruzko idazkien berri bagenuen eman bazterreko xoko hontan hala nola nekazarien mesedetarako egin liburuez zer edo zer bada esana biziki herots handia ez izanagatik ere. Oraikoa berriz txori, arrain eta halakoren berri ekartzen diguten zenbait lanen aipamena irakurgai agerian uzteko asmoa azaltzen dugu. Hasmenta polita badaiteke izan 1908. urtean Donostiako moldiztegi probintzialean inprimatua den honako izenburu hau erakusgai duen liburua: *Catalogo descriptivo de la coleccion de aves e insectos legada a la Exma. Diputacion de Guipuzcoa por el finado Don Angel de Larrinua*. Urte bat lehentxeago, apirilaren bostean egin aldundiaren bilkuran, erabaki egin zen aipatu idazkiaren argitalpena. Angel Larrinua zenaren alargunak, Angela Azkonak, etxean oztopogari zuen bere senarraren hegaztien bilduma zabala eskaini zion aldundegi giputzari, eta honen hornigarri, Larrinuaren izandako ikasle batek bilduma osoaren katalogoa ondu zuen, hauxe Pedro Sansinea Lekunberri izan zen. Bere katalogoaren eskuidatzia aldundegian utzia zuen jada 1907.eko martxorako, eta gorago esan batzar nagusian argitalpenaren betebeharrak markatzen dira. 1.000 pezeta ordaindu zitzaizkion idazleari, eta 100 aleetako edizioaren banaketa hauxe izan zen: bata alargunarendako, 25 Sansinearendako, eta Gipuzkoako udal guziei bana eman zitzaien. Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean eskuidatzia kontsultagai badago, eta benetan merezi duela begiztantea hizki eder batez eginiko lantxoak. Sarreran bere ehizaren zaletasuna aipatzen du hegaztien deskribatzeko guziz lagungarritzat argiro utzirik, alta bere ezjakintasuna aldarrikatzen baitu biologia kontuetan, gero lanan ikusten ez den bezala, izan ere ederki ongi taxaturikoa baita. Nahiz erderaz idatzia egon, bertan agertzen diren hegazti nahiz zomorro guzien euskal ordainak ematen dira, itur aberatsa izanik alor horretan. 154 orrialdeetan zehar hegaztien katalogoa garatzen da, bildumaren alde laburrak zomorro eta narrastiei dagokiena izanik, orrialde bana herpatzen dutelarik.

Telesforo Aranzadi Unamuno Bergarako antropologo famatuak badu zapi orrialdetako artikulua labur bat hegaztien izenen azalgarri, 'Nombres vascos de las aves' alegia, Julio Urkijok 1907. urtean sortu *Revista Internacional de Estudios Vascos* aldizkarian agertu zena 1909.ean. Zenbait urte beranduago, beste arlotako hiztegitxoak aldizkari berean agertzeari ekin zion, esaterako, 'La vaca en porciones y nombres vascos de estas' 1910.ean, 'Nombres de plantas en euskera' 1929.ean, Bernardo Estornes Lasa izabarrak igorri Erronkari ibaxako datuekin eginko izenburu bereko 'Nombres de plantas en euskera' 1930.ean, edota 'Nombres de peces en euskera' 1933.ean.

Filipinetan jaiotako Estanislao Jaime Labairu Goikoetxea apez bizkaitarrak bere 1895. urteko *Historia general del señorío de Bizkaia* bilduma itzelaren lehenbiziko liburukian zenbait hiztegitxo badakarzikigu. 459-481 bitarteko orrialdetan 500tik goitiko landare izen, 515 orrialdetik aitzina 300 arrain deitura inguru, eta azkenik, txori, ugaztun, zomorro, anfibio, eta narraztien bildu izen eskaintzen du 539tik 567ra doazen orrialdetan. Hemendik jaso bide zuten, Carreras Candik bultzatu *Geografia general del Pais Vasco Navarro* sailaren Bizkaiari egokituriko alean, Karmelo Etxegaraik emaniko hitz zerrendak atontzeko informazioa. 1914. urtean Barcelonan agerikoan diren ele bildumak honako hauek ditugu: bizkaiko landareak, animaliak, txoriak eta arrainak.

Jean Elissalde Uztartitzekoa eta Louis Dassance lapurtarrak *Gure Herria* aldizkarian Euskal Herriko txoriei buruzko berriak hasten dira artikulua saila bat argitaratzen 1923. urtean: 'Euskal Herriko hegaztiak eta txoriak'. 1923 urteko errearoan harrapakariez dihardute, urte bereko uztailean alean gautxori harrapakariez, haitz txoriez eta ur eregiko txoriez. Agorrikan bele motez aritzen dira. Oraino jarraiera eman zioten 1925. urte arte, bost emanaldi gehiagotan. Bestalde, Jean Elissalde berak geroxeago bazuen utziko 'Landare eta loreak' hiru orrialdetako izenburuko artikuluxka bat aldizkari bereko 1930.ko urriaren alean.



■ Iruñeko Hiria Xake Torneo itxiko lehenengo ihardunaldiko partida, 1994ko abenduaren 27an jokatua.

Zenon Franco, 2.495 ELOkoa (Espainia)-Jesus de la Villa, 2.490 ELOkoa (Euskal Herria).

1) Zf3, d5; 2) g3, Ag4; 3) Ag2, Zd7; 4) 0-0, gZ-f6; 5) d3, e5; 6) bZ-d2, Ac5; 7) h3, Ah5; 8) e4, e4; 9) e4, 0-0; 10) De1, Ze8; 11) Zc4, f6; 12) b4, Af7; 13) Dc3, Ae7; 14) Zh4, Zb6; 15) Za5, Zd6; 16) Gd1, Ze4; 17) Gd8, Zc3; 18) Ga8, Za8; 19) a3, b5; 20) Zc6, Ad6; 21) Za7, Zb6; 22) Zf5, Ae6; 23) Zd6, d6; 24) Ad2, bZ-a4; 25) f4, Gf7; 26) Ae3, Gc7; 27) Ge1, h6; 28) Af2, Ac4; 29) Eh2, Ef7; 30) g4. Ez zaie axola f4-ko peoia galtzea, 'Ac6' eta 'Ge8' barnerketa arriskutsua delako.


30), g5; 31) g5, f-g5; 32) h4, Ae6; 33) g5, g5; 34) Eg3, Ad7; 35) Af3, Ef6; 36) Gh1, e4. Ikus koadroa. Zaldi txuria jokoz kanpo dago. Beltzen 'c3-ko' zaldia, ordea, tinko. Erdigunea hartu dute beltzek, eta 'f3-ko' alfila itxia geratu da. Horregatik, beltzek jira emanen diote

partidari.

37) Gh6 xa, Eg7; 38) Gd6, f3; 39) Ef3, Ef7; 40) Gh6, Zd1; 41) Zb5, Gc2; 42) Gh7 xa, Eg6; 43) Gd7, Gf2 xa; 44) Eg3, Gf1; 45) Gd6 xa, Ef7; 46) Gd3, Ge1; 47) Gd5, Ef6; 48) Gf5 xa, Eg6; 49) Zd4, Ge4; 50) Gd5, Gg4 xa; 51) Eg4, Ze3 xa; 52) Ef3, Zd5. Gazteluak trukatzeko onik egin al die beltzei? Galtzea, bederen, uxatu dute. Erraza dirudi berdinketa egiteak.

53) b5. Ulergaitza da 'Ze6' egin ez izana. Peoi beltza janda, beltzek ez omen dute irabazterik. Ala bai? 53), Ef6; 54) b6, dz-b6; 55) Eg4, Zc4; 56) Zf3, Ze3 xa; 57) Eg3, g4; 58) Zd4. Zergatik ez 'Zh2'? Agian, matea iristerik badute beltzek. 58), Ee5; 59) Ze6, Ef5. Zaldia harrapa zezakéen? Ariketa duzue. 60) Zd4 xa, Ee4; 61) Zc6, Ed5; 62) Ze7 xa, Ee5; 63) Zc6 xa, Ee4; 64) Ze7, Zc3; 65) a4, Ze2 xa; 66) Ef2, Ed3.

Txuriak orain galduta daude. Nekeagatik edo, partida txarra izan zen.



Basaize elkarteko kideak uros dira. Aurtengo kultur astea xarmanki iragan zela aitortu zuten, nahiz eta hitzordu batzutan jende gutxi bildu ziren. Hala ere, Nafarroaren Egunak izan duen alimaleko arrakastak bide beretik segitzeko asmoa eman die haraneko lagunei.

Kultur aste arrakastatsua

LUTXI FOURCADE / BAIONA

Jende gutxi aipatzen du joan den larunbatean bukatu zen Kultur Astea Baigorriko aldean. Zonbait asteentzat beste lan dorpea izanen dute bertako biztanleek, herriko bozak prestatu behar baitira eta ekainaren 17a arte, hauteskundearen bigarren itzuliaren eguna, gehienek aipagaiak izanen da zerrenda osatzea, izen borratzea edo abstentzioaren arrangura. Hala ere, bilana egiteko tenorea hor dugu, Baigorriko XVII. Kultur Astea joan den larunbat aratsean amaitu baita Urepele eta Alduden.

Aurtengo lehen hitzordua finkatu zuten antolatzaileek Nafarroaren Egunaren bezperan, ekitaldi berezia muntatu nahi zuelako bi egunez. Hala ere, lagun gutxi ihardetsi ziola deiari aitortu behar da, lekuko gaztek baizik ez baitziren bildu Patagonia eta Pottoka Band taldeak entzuteko. «Giro onean iragan da dudarik gabe baina datorren urteko beharko dugu berriz pentsatu pesta hori, animazioa atxiki nahi baitugu» Betti Bidart, Basaizeko kideak zioenez.

NAFARTARREN HITZORDUA BAIGORRI Nafarroaren Eguna dago-kionez, ustekaberik gabe aitortu zuen Bidartek «xarmanki pasatu zela». Egia da goizetik denbora ederra izan zela eta jendea usaian baino goi-

zeago hurbildu zen Baigorriat. Eskulan erakusketa eta animazioak goizik abiatu ziren, lagun gero eta gehiago etortzen zirenean eta plazako ekitaldia abiatu zenean «plaza mukurru bete zela» oroitu zuenez. Bazkariko 1.000 tokiak ere eguerdi baino lehen denak saldu zituzten eta alimaleko jendea bildu zen aratsaldeko ikusgarrian.

«Gutxi gora behera erraiten ahal da 8.000 jendez goiti pasatu dela eta aratsaldean berean sei eta zazpi mila arteko publikoa izan da plazan» azpimarratu zuenez. Bestalde, Baxe Nafarroa eta Baztanetik ainitzez jende gehiago bildu zela ohartu dira antolatzaileek. Baigorriko zein

auzoko herriko 100 lagunak lanean ari izan dira egun horretan eta biharamunean ere lagun ainitz bildu zen garbiketarako egiteko, maiatzaren 1a izanez herriko langileek ez zuelako lanik egiten. Haraneko lagunez gain, Makea, Aiherra edo Oztibarreko gaztek ere laguntza eman zuten ohidurari jarraikiz.


HITZORDU ABERATS ETA ALDAKORRAK

Haurrek ere beraien egun pesta izan dute eta 80 bat bildu zen asteazken aratsaldean proposatutako joko eta animazionetan parte hartzeko. Biharamun aratsean, mintzaldia telebistaz proposatu zuten antolatzaileek batez ere aztertze tokiko telebista. Arrasateko esperiantza aipatu zuten bertako lekukoek eta Xorroxin irratikoek aipatu zuten heldu den urtetik abiatuko zuten proiektua, eman-kizun batzuen egiteko herriko xedea baitute. Aldudarra batasuneko ere bideoan oinarritutako proiektua aipatu zuten eta azpimarratu zuten mugaz gaineko osagarria, batez ere Baztan eta Aldude artean.

Larunbatean Gernikako haur korala izan da Baigorri eta elkartu ziren Iguzki Lore korala eta Arrola dantza taldeko haurrekin pilota, bertsu, kantu eta dantza ikusgarrian. Gernikatik 80 bat haur etorri ziren, Iguzki Lorek gonbidaturik. Hots, joan den ur-

Goizetik denbora ederra egin zuen eta jendea usaian baino goizeago hurbildu zen Baigorriat.

Erraiten ahal da 8.000 jendez goiti pasatu dela eta aratsalde berean sei eta zazpi mila arteko publikoa izan da plazan».



Garaztarrak taldearen ekitaldia.

tean Baigorriko haurren korala Bilbon izan zen kantu elkarretaratzean parte hartzeko eta bertan elkar ezagutu ondoren, pentsatu zuten iparraldera etoraraztea. Aratsean, kantaldi eman zuten elgarrekin Orzaizeko elizan eta Sustraiak emandako dantzaldia jende ainitz bildu zen.

Igandean, zer nahi jende bildu zen arkezututako bi antzerkietan, Ezkonduko ditugu eta Alegia deus ez eta astelehenean, Frantziak ospatzen zuenean bigarren gerlaren ondoko askatasuna Orzaizek, aldiz, bere ikastola berria ospatu zuen.

Joan den larunbatean, aldiz, lagun gutxi bildu zen Aldude eta Urepelen izandako egunean. Hots, «pilota partida ederra eta gaitzeko kontzertua antolatu arren» azpimarratu zuenez, lekuko gazte baizik ez ziren bildu Urepelen. «Egia da gau horretan zer nahi pesta baziren toki guztietan eta arrakasta gutxi bildu du gure azken hitzorduak» aitortu zuenez. Hala ere, datorren urteko Baigorritik kanpo zerbait antolatzeko xedea dute antolatzaileek, nahiz eta indar berezia egin beharko dute ekitaldien promozioa egiteko.



Orzaize Ikastolako haurrek pastorala eskaini zuten.

Pastorala Baxe Nafarroan ere

L.F. / BAIONA

Baigorriko Kultur Asteaz baliatu dira Orzaizeko ikastolaren arduradunak berritan eraiki duten etxea estreinatzeke. Hots, aterbea eskas zutelako haurrentzat (orai arte, Orzaizeko hiru toki desberdinetan banatu ziren haurrak), burasok erabaki zuten eraikuntza berria egitea duela hiru urte. Urtez urte, etxea lurretik altxatu da, urte batez ama ikastolaren gela eginez, ondokoa aterbea muntatuz eta ondoren lehen mailako ikas gelak eratuz. Aurtengo ikasturtearen sartzea hiru tokitan egin zuten obrak ez baitzituzten bukatu buraso eta ofizialek. Baina poztasunez beterik ziren buraso eta erakaste urtearen hasieran lehen aldikotz Orzaizeko ikastolaren haur guttiak elkarrekin baitziren.

Orzaize eta haraneko laminek

obren bururatzea ospatu nahi zuten ofizialki eta haurrek ere parte hartu zuten eskainiz asmatu zuten pastorala. Aitor Sarasua bertsolariak testuak idatzi zituen, arrazakeria salatuz eta munduko gaurko problema larri batzuk aipatuz. Ageri zen haurrak gogotik kantuz ari zirela bildutako 300 lagunentzako.

Ondoren, denak bildu ziren antolatutako pestan baina azpimarratu behar da Orzaizeko auzapeza ere etorri zen pestara. Bere mintzaldia egin zuen azpimarratuz ikastolak bere tokia ukan behar zuela herri batean, beste edozein ikastola bezala.

Nola ez oroitu hauteskundeak hurbiltzen direla eta Orzaizeko ikastolaren arduradunek mailegua egin dutela eraikuntza ordaintzeko, ez baituzte inolako diru laguntzarik lortu erakunde publikotik.

«Lan gehiago egin behar du jendeak»

A. BARANDIARAN / IRUNEA

Zabalik, Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasleen talde nagusia, desagertu egin da. Erakunde berriak zituen arazoak zirela-eta duela lau urte sortua, beste batzuei tokia uztea erabaki dute ikasleek, neurri batean erreleborik ez delako aurkitu atzean. Txema Liberal Zabalik-en hasieratik egondakoa da.

EGUNKARIA.— Zerk hil du Zabalik?

jendeak jarraipena emango ziola?

LIBERAL.— Zabalik-en barruan Ikasle Abertzaleak ere sartua zegoen hasieran. Proiektua argi zegoen: euskara eta kulturaren alde, eta unibertsitatean zeuden arazoak konpontzearen alde. Ondoren, Ikasle Abertzaleak bere kabuz atera zen lana egitera. Ondorioz, ikusi dugu badela garaia beste batzuek aurrera eraman dezaten lan hori.

EGUNKARIA.— Ikasle Aber-

Orain, hau guztia aurrera eramateko garrantzia handia dute klaustrorako aurtengo hauteskondeek.

EGUNKARIA.— Nolanahi ere, lan gehiegizkoa izan da bakar batzuek, hori baita Zabalik desagertzeko aipatu den arrazoietako bat.


LIBERAL.— Ordezkariorik klase eta jende guztiari informazioa ematen lan asko egin dugu, eta denbora asko kendu digu horrek. Askotan, gainera, lan hori ez da ikusten, atea itxita egi-

ria. Ze balantzea egiten duzue errektorearen lanaz?

LIBERAL.— Gauza batzuk oso ongi egin dira, aipatu euskararen plangintza, edo ikasleen ordezkariak, eta abar. Nolanahi ere, badira zalantzak plangintza nola eraman behar den, ikasleen errektoreordezarekin berdin, irakasleen lana baloratzeke irizpideak oraindik ez dira ongi bideratu... Beraz, lana egin da, baina badira hutsune batzuk.

EGUNKARIA.— Zer onura ekarriko du unibertsitate barrutia sortzeko Euskal Herriko Unibertsitatearekin sinatu den akordioak?

LIBERAL.— Akordio horretan badira gauza positiboak bi unibertsitatearen artean egiteko. Gure ideia izango litzateke



Txema Liberal hasieratik egon da Zabalik-en.

JOXE LACALLE

TXEMA LIBERAL.— Unibertsitateak eginak ditu jada urte batzuk, eta hasierako une gogorak hasi dira desagertzen. Handitzen ari da, proiektu batzuk aurrera doaz, kulturalki lana handia eta berezia egin da... Duela urte batzuk ez zegoen horrelako mugimendurik. Gainera, gure proiektua ikasle batzuen proiektua zen, ez atzean talde politiko batzuen proiektua, eta jende guztiari ikasketen amaiera heldu zaionean, eztabaidatu egin genuen ea zer egin behar genuen. Aurrera joateko klaustrorako hauteskondeetara joan behar genuen, eta erabaki genuen ez genuela jarraituko. Orain badira beste taldeak eta beste jendea.

EGUNKARIA.— Hasieratik ikusi zenuten, beraz, Zabalik-en proiektua epe motzekoa zela, edo espero zenuten atzetik

tzaleak taldeak hemendik aurrera egingo duen lanarekin ados egon liteke Zabalik, helburuak berberak dira?

LIBERAL.— Bai, nik esango nuke ikuspuntua berdina dela. Haiek klaustroan eta Gobernu Batzorderako ordezkariak ere atera zituzten, eta badakite zer den, egin dute bere lana.

EGUNKARIA.— Zer moduzko esperientzia izan zaizkizue urte hauek?

LIBERAL.— Ni pozik nago. Nabari izan da unibertsitatean egin den lana, eta ikusi da ikasleen aldetik bazegoela kezka bat egin behar ziren proiektuen aurrean. Lortu zen ikasleen errektoreordetza, klaustroan zegoen ordezkari-tza ere igo zen, euskararen arloan plangintza egin da... eta beste arlotan ere lan handia egin da. Motza da oraindik, baina egin dugu gure lana.

ten delako. Hori gogorra izan da, eta batzutan nekosoa.

EGUNKARIA.— Harremana ona izan da hautagaiekin?

LIBERAL.— Unibertsitateak dituen funtsezko proiektuak aurrera eramateko ez da arazorik izan. Ikasle guztiek ikusten genituen arazoak. Gauza da nola eramaten dugun eta zer jarrera dugun hori aurrera ateratzeko. Hor izan dira desadostasunak: euskaraz ari garelarik, plangintza onartu ondoren gero kanpoan kontra egiten zuten, edo klaustroan ez zuten gogor egiten euskararen alde, baizik eta libre uzten zioten jendeari nahi zuena erabaki zezan. Intsumisioaren gaia, tasak, horien inguruan ez zuten oso jarrera garbia.

EGUNKARIA.— Aurten utziko du bere postua Garcia Blasco errektoreak, eta heldu den urtean aukeratu beharko da be-


unibertsitate bakarra sortzea, eta horrekin aurrera egitea. Gero horrekin joan behar da Gizarte Kontseilura, eta badira arazoak gobernu ezberdinak izateagatik, baina nahiko lan polita izango zen. Gure aldetik komenigarria ikusten dugu.

EGUNKARIA.— Osasunez dago Nafarroako Unibertsitate Publikoa?

LIBERAL.— Unibertsitatea kalean ikusten denaren arabera-koa da. Ikusten da jendeak konpromezua hartu duela gauzak aurrera eramateko eta..., baina aitortu behar da jende asko joaten dela beren ikasketak egitera, eta gero lan ona ateratzera, eta ez dira arduratzen besteekin lan egiten. Partaidetza oraindik oso urria da, eta handitu beharra dago. Nola lortu hori? Jende guztiarekin lan eginez eta dinamika sortuz.

Txema Liberal

IKASLEA



SOSLAIA

Lana, kezka

Auten bukatuko du Txema Liberalek Ingenieritza Teknikoko azken kurtsoa, «hala espero dut behintzat». Hasieratik Zabalik-en egonik, Gobernu Batzordean dago egun, eta duela gutxi Gizarte Kontseilurako ere aukeratu zuten. Ikasketak bukatu ondoren lan munduan murgiltzea da ikasle gehienek kezka, baina garbi dute lanaren bila atera beharra dutela. «Unibertsitateak eztabaidatu beharko luke eman behar dituen ikasketei buruz, zer eskaini behar duen, eta bost urtetan zehar edo plangintzak egin. Halaber, ikasketak berritu egin behar dira pixkanaka, aldaketak eginez».

NOSKI JATOR

© Zaldi Eroa



A! ... JESUS! ... ETXekoandrea PP-KOA, ETXekojauna HB-Koa, AITONA BATZARRE-Koa ETA SEME MOTORISTA HORI BERRI PSOEKOAAA!!!
HAUTESKUNDE BEZPERA GUZTIETAN BEZALA GAUR ERE GOICOECHETAREN BAZKARIA ISKANBILATSUA IZANGO DA!!

HAUTESKUNDEAK (2) : GOICOECHETAREN EZADOSTASUNAK



BERE ERASOA BORTITZA DA!!

HAU FAMILIA HAU!!

ETA JARRI EUSKO LABELA BILDOTS A!!